



Zabaldu ahoa, uh mmm...

drogeteniturri

TOKIKOM

Ermua eta Mallabiko aldizkaria 179. alea 2010eko maiatza

INDARRA

zure etorkizunarentzat

ARMERIA ESKOLA - EIBAR

- FABRIKAZIO MEKANIKOA
- MANTENIMENDUA
- ELEKTRIZITATEA
- ELEKTRONIKA
- AUTOMATISMOAK
- TELEKOMUNIKABIDEAK-
INFORMATIKA

Izenematea: Maiatzaren 31tik ekainaren 1 Ira



Isasi, 36 - 20600 Eibar
Tfno. 943 20 32 44
e-mail: eibar@armeriaeskola.com

www.armeriaeskola.com

Aukeratu liburu bat Udal Liburutegian, eraman etxera maileguan eta irakurriz gozatu. Itzulitakoan fitxa bete eta beste liburu bat erosi eta gozaten jarraitzeko, %25 edo %50eko erosketa-txekea lortuko duzu.

**IRAKURRI,
GOZATU
ETA
OPARITU**

Liburu sortak eta
30 €ko erosketa-txekeak
zozketatuko dira Liburutegian,
hile bakoitzeko
parte hartzaileen artean

* Apirilaren 23tik uztailaren 24ra

Euskal
Birusa
Elkartea



topagunea



Biblioteca
Municipal
de Ermua
Ermuko
Udal
Liburutegia

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale 2, 1. (Elexoste)
247 posta-kutxa
943 17 93 50.
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.org

ERREDAKZIO TALDEA:

Estibalitz González,
Alazne Aiestaran,
Eneritz Aranburu
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Túbal jatetxea (Tafalla).

LAGUNTZAILEAK:

Jesús Portugal, Patxi López,
Emakumeen Asanblada,
Mari Nieves Gastón,
Nerea Berriozabal, Beatriz
Ramírez, Asier Ibaibarriaga
eta Fede Iturriagagoitia.

ARGAZKIAK:

Estibalitz González,
Dorleta Vidal, Santos Vega,
Eneritz Aranburu, Roberto
Tejada, Túbal jatetxea, Piti
Pinsach, Asier Ibaibarriaga
eta Nerea Berriozabal.

PUBLIZITATEA:

688 63 28 76.

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Jon Arano, Irune Martínez
eta Ane Loiola.

TIRADA:

2.200 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/94.

*Drogeteniturrrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko hegaztiak

...Fede Iturriagagoitiak batuta

Txori borobilkote hau, bere papar eta aurpegi laranjaatik ezagutuko duzu. Eguna zabaldu aurretik ekitzen dio kantuari eta iluntze aldera, beste ekinaldi batekin agurtzen gaitu. Emeak bakarrik neguan abesten du, bere esparrua defendatu behar duen sasoiari eta bikotekidea, abesten duten arren artean aukeratzen du. Jate kontuetan ez da batere mizkina: fruitu eta haziak zein eltxo, armiarma, matxinsalto eta zizareak jateko ez du erreparorik txikiena erakusten. Gizakiaren inguruan kuxkuxean ibiltzea du gustuko eta Ermuan zein Mallabiko edozein bazterretan ager daiteke: gure etxeburu, lorategi eta mendietan ugaria baino ugariagoa da.

TXANTXANGORRIA

Petirrojo. Erithacus rubecula



Hilabete honetan...

TALDE-TXOKO4	BOTEPRONTOA16
Txindurri txistu eta dantza taldea	Juanjo Astoreka
ELKARRIZKETA5-7	KIROLZALE17
Atxen Jiménez eta Nicolás Ramírez	Amadeo González
MALLABIAN ZER?8-9	IRITZIA18
Futbito taldea Euskal Ligan	Etxeo langileak
ERREPORTAJEA10-11	SALEROSKETAK19
Filo bordatzailea	Saldu, erosi edo agurtu
MOTZEAN12	ANTZINAKOAK.....20
Irakurri, gozatu eta oparitu	Ermuko eta Mallabiko argazkiak
ELKARRIZKETA13	KALEKO INKESTA21
Julen Sololuze eta Beñat Ugartetxea	Ermuko eta Mallabiko jendearen iritziak
ELKARRIZKETA14-15	AGENDA22
Mikel Urdangarin	Ekaineko agenda

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Txindurri txistu eta dantza taldea

Ehun kidetik gora duen talde honek 35 urte bete ditu aurten. Ikastolan eta Lobianon entseatzen dute eta urtean hainbat ekitaldi antolatzen dituzte, tartean Ermuko Euskal Jaia. Umeentzako matrikula bi urtetan behin zabaltzen dute.

- Zein urtetan sortu zen taldea?

1975. urtean jaio zen Txindurri Txistu eta Dantza taldea eta urte horretan hasi zen dantzarien fitxak egiten. Aurretik Ikastolako dantza talde bezala funtzionatzen zuen, hainbat gurasok bultzatuta, baina zenbait konturen ostean taldea banatu eta Txindurri jaio zen.

- Zenbat kide zarete?

Gaur egun 120 kide inguru gara dantzari eta txistulariak batuta, 8 eta 10 talde ingurutara banatuta. Beste garai batzuetan dantzari gehiago zegoen, 90. hamarkadaren hasieran, esaterako, 200 lagun izatera ere heldu ginen.

- Zeintzuk dira zuen helburuak?

Gure kultura zabaltzea eta jendeari ezagutaraztea.

- Zein maiztasunekin entseatzen duzue eta non?



2010eko Txindurri Eguna

Adinaren arabera, taldeek entseatzeko ordutegi eta lokal ezberdinak dituzte. Txikiek ordubete t'erdia entseatzen dute astean, normalean Ikastolan. Nagusiek, berriz, 3 ordu entseatzen dute astean, Lobianon. Hala ere, dantza saioen bat prestatu behar dutenean gehiagotan biltzen dira, astean 3 edo 4 egunetan. Horrez gain, dantzarako erabiltzen dugun arropa ere, Lobianon gordetzen dugu.

- Urtean zeintzuk ekitaldi egiten dituzue?

Txindurri Eguna antolatzen dugu apirilean eta baita umeen azken erakustaldia (lehen Zineman egiten zen eta orain plazan). Lehen Ermuko Euskal

Jaia herrian zeuden beste talderekin txandaka antolatzen genuen, baina azken urteetan guk antolatu izan dugu, gainontzeko dantza taldeak desageritzen joan direlako. Santixauetan dantza erakustaldia egiten dugu plazan eta Bizkaiko Dantzari Egunean parte hartzen dugu. Horretaz gain, inguruko herrietako Euskal Jai batzuetan ere parte hartzen dugu.

- Zuekin harremanetan jartzeko?

Gure telefonoa 688802577 da, hala ere taldean parte hartu nahi duena edozein erakustalditan hurbildu daiteke gurera. Umeen matrikula, berriz, bi urtetan behin zabaltzen da.

Dorleta Vidal

SAN ANTONIO OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

GARAGARDOGEGIA CERYECERIA
NHEH

ZYTik

OTARTEKO eta
IMPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
berezitasuna

943 17 39 78



**Atxen Jiménez eta Nicolás Ramírez, sukaldariak:
“Nire seme-alabek beste lanbide
bat aukeratzea nahi nuen”**

Jardunaldi Gastronomikoen 10 urte betetzen dituzte aurten, eta lehen aldiz, emakume batek eskainiko du dastatzeko afaria: Atxen Jiménezek, Tafallako Túbal jatetxeko jabeak. Sei edo zazpi lagunez osatutako taldearekin arituko da Atxen Erretna Elkartearen, eta tartean Nicolás Ramírez egongo da, bere semea eta Túbaleko egungo sukaldeburua. Horrelako ekimenetan betidanik parte hartu izan dute eta hasierako urteetan euren arrain-saltzaileak utzitako furgonetarekin joaten ziren leku batetik bestera. “Etxetik irtetea erronka da beti -diote-, baina gustura egiten dugu. Gurera etorriko ez liratekeenak gure sukaldaritzara hurbiltzeko aukera ematen digulako”. Bon appétit!

- Nola laburbilduko zenukete zuen ibilbidea sukaldaritzan?

Atxen: 1942. urtean nire gurasoek taberna zabaldu zuten, 'Túbal' deiturikoa, ohiko mito hispaniarra. Mitoek, kondairek eta nire herriko armarriak diote Túbal Cain Iberiar Penintsulako lehen biztanlea izan zela eta hainbat herri sortu zituela, tartean Tafalla. Nire amaren sukaldaritzari esker eta nire aitaren sinpatia eta profesionaltasunari esker, taberna jendez gainezka egoten zen beti. Bertan pasatu nuen haurtzarora eta 14 urterekin, Iruñeko barnetegi batera bidali ninduten ikastera. Oso gogorra egin zitzaidan familia eta herritik urrun egotea. Tafallara bueltatzerakoan nire amak sukaldaritzaren tradizionaltasunaren oinarriak irakatsi zizkidan eta nire aitak, berriz, jendea begirunez, sinpatiaz eta profesionaltasunez tratatzen. Nire gurasoek ez zuten nahi sukaldaritzaren niretzat, oso bizimodu gogorra zelako, baina hala ere, jatetxea ez saltzeko konbentzitu nituen. 30 bezeroentzako lekua zuen, orain, berriz, 300 lagunek jan dezakete bertan. Duela hainbat urte, nire seme Nicolásek hartu zuen jatetxeko gidaritzaren Espainiako jatetxerik hoberenetan (Arzak, Zuberoa, El Bulli...) eta hainbat ikastarotan trebatu eta gero. Túba-



leko sukaldaritzari haize freskoa eta modernoa eman dio.
- Txikitatik jaso dute zure seme-alabek sukaldaritzaren rekiko maitasuna?

A.: Gure jatetxe eta sukaldaritzan Nicolás eta Beatrizen laguntza oso garrantzitsua izan da. Nire gurasoek bezala, seme-alabek beste lanbide bat aukeratzea nahi nuen nik. Nicolás behetik hasi zen Túbalen, harrikoa egiten, eta bere trebeziari esker gaur sukaldari burua da. Beatriz, beranduago hasi zen gurekin, kudeaketa lanak egiten. Martak, Nicolásen emazteak, jantokian egiten du lan eta somelier-a da. Etorikiz-



nean konfiantza osoa dut, nire seme-alaben talentuarekin elkarbizitzen dudalako eta gorputz eta arimaz lan egiten dutela ikusten dudalako. Lan talde konprometitua sortu eta gidatzen asmatu dute.

- Zure sukaldaritzan, hasieratik gaur egun arte, aldaketarik egon da?

A.: Hasieran nire amak erakutsi zizkidan ohiko sukaldaritzako sekretuak. Túbal gidatzen hasi nintzenean 'Euskal Sukaldaritzaren berria' jaio zen: Pedro, Juan Mari, Hilario, Tatus, Argiñano... Ilusioz bete ninduten: izaten nituen tarte txiki guztietan formula berriak probatzen nituen eta sukaldaritzako liburu edo aldizkariarekin hartzen nuen lo oheratzean. Horrela, Túbal berri bat sortzeko formazioa eta bilakaera jaso nuen.

- Zelan definituko zenukete egungo zuen sukaldaritzaren?

A.: Nicolásek 'disfrutatze-

ko sukaldaritzaren' egiten duela esaten du. Bi sukaldaritzaren lantzen ditugu gaur egun eta hauek armonian bizi dira. Alde batetik, Nafarroako sukaldaritzaren tradizionaltasunarekin platearak prestatzen ditugu, primerako lehengaiak erabiliz. Bestetik, egungo sukaldaritzaren egiten dugun, abangoardiakoa izan barik: teknika berriak erabiliz, baina sustrai nafar sendoak mantenduz.

- Zeintzuk dira gehien erabiltzen dituzuen lehengaiak?

A.: Gure geografia-kokapenari lotuta dauden produktuak gurtzen ditugu. Hori dela eta, barazkiak nagusi dira gure plateretan. Orain, udaberriaren, barazki osatutako menua dugu, esaterako. Bestalde, basoz eta mendiz inguratuta gaudeenez, perretxikoak, ondoak, ehizakiak eta neguko boilurra, besteak beste, erabiltzen ditugu maiz. Gainera

**“Nicolás harrikoa egiten
hasi zen Túbalen.
Gaur sukaldari burua da”**

ILEAPAINDEGIA
Izaskun
 Goienkale, 9 (Plaza San Martin)
 48260 Ermua Bizkaia
 Tel. 943.17 66 90
ILEAPAINDEGIA

komunitateak
aseguratuak
San Pelayo
 aholkularitza
fiskal eta juridikoa
 Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
 San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

Pub SCORPIO

 Zubiaurre, 21
ERMUA

Kantauriar itsasotik ordubetera gaude.

- Nor miresten duzue?

A.: Arestian aipatutakoak eta bestetik, bizitza osoa itzalean, lapiko artean lanean ematen duten emakume guztiak, pintxoz beteriko barrak dituzten tabernetako sukaldeetan.

N.: Nik, Zuberoako Hilario Arbelaitz miresten dut. 20 urterekin nire lehen praktikak egin nituen bertan, urtebetez, eta oso oroitzapen onak ditut. Bere sukaldaritzan miresten dut gainera. Ferrán Adriá baita ere, garatu dituen teknika eta kontzeptuengatik eta Espainiako sukaldaritzan munduko sukaldaritzan onena izatera eraman duelako.

- Plater batean, zer da garrantzitsuagoa: zaporea, usaina, egitura edo aurkezpena?

N.: Guztien arteko armonia egon behar da, baina batez ere, goxoa egon behar du.

Usain ona izan behar du, aurkezpenarekin batera, horixe delako plater batek transmititzen duen lehen gauza. Aurkezpenak estetikoak eta kromatikoak izan behar du. Egiturari dagokionez, barazkietan esaterako, egosketa egokiak egitura egokia finkatuko du, eta horrekin jolasten dugu.

A.: Dena da oso garrantzitsua, baina sukalde ona izatea ezinbestekoa da. 'Eszenaratzte' bikaina badago, baina sukalde ona ez bada, ez zara jatetxe horretara bueltatuko. **- Zer garrantzi du uztartzea plater bat jaterakoan?**

Oinarrizkoa da uztartzea. Harritzekoa da zelan aldatzen den plater baten eta ardo baten zaporea uztartzearen arabera. Hori dela eta, duela urtebete 'Harmonia afariak' antolatzen hasi ginen. Bi hilabetean behin egiten ditugu eta sei plater eta sei ardo ezberdinez osatutako menua eskaintzen

"Uztartzea oinarrizkoa da. Harritzekoa da plater baten zaporea zelan aldatzen den"

dugu. Aldi bakoitzean bodega baten eta bere enologoa-ren laguntza izaten dugu.

- Komentsalak aldatu dira?

Ez dut uste. Gure sukaldaritzaz gozatzera etortzen jarraitzen dute gurera. Izan ere, bezeroek osatzen dituzte euren dastatzeko menuak Túbalen.

- Komentsalen iritziak ezagutzeko gustuko duzue?

A.: Funtsezkoa da. Bertan egoten gara beti, eurak entzuten, horrela ikasten dugu.

N.: Eurentzat egiten dugu lana eta gustukoa duten edo ez jakin behar dugu. Asko ikasten da. Euren itxaropenak bete ez dituzula da sukaldari batek inoiz entzun

nahi ez duena.

- Zein da plater on bat egiteko sekretua?

Maitasunarekin eta prisa barik egitea; behar beste denbora eman eta garaian garaiko produktuak erabili.

- Ermuko Jardunaldi Gastronomikoetan emakume batek dastatzeko afaria eskainiko duen lehen aldia izango da. Zein lekutan dago emakumea goi sukaldaritzan eta zein da joera?

A.: Sukaldaritzak oso erdutegi berezia du, senarra eta seme-alaba gazteak dituen emakumearentzat batez ere. Ez da erraza: gauak, asteburuak, oporrak... Are gehiago zure senarrak arlo berean ez badu lanik egiten. Gizonak baino zailtasun handiagoak izaten ditugu integratzeko, ama izaten jarraitzen dugulako eta gure bihotza familian dugulako hein handi batean. Bi lan ditugu: etxekoa eta etxetik kanpokoak. Hala ere, gero eta emakume gehiago egongo direla uste dut.

- Zerbait geratzen zaizue egiteke?

A.: Beti geratzen da zerbait. Orain, nire karrera bukatze dagoela, bizitza lanari eskaini diodala ikusten dut, baina oso emakume zorionsua naiz: berriro jaioko banintz, sukaldaria izango nintzake, zalantzarik gabe.

Dorleta Vidal



solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



PUB YOMY

Zubiaurre
kalearen
bihotzean

Carlos Perez, entrenatzailea: “Poza kristona, Mallabia Euskal Ligan!!”

San Isidro, baserritarren egunez Santurtzi aldera abixatu zien mallabitarrek. Han, sardiña freskue barik sara bete gol lortute, urte osuen desiatuteko garaipena ekarri ebien etxera.

- Ez du edonork lortzen 3 urtean segidan mailaz igo-tzea...

Gu oso pozik gaude urte hauetan egindako lanarekin, lortutako emaitzekin eta futbolaz gozatzeaz. Bizkaiko Areto futboleko goreneko mailako txapeldunak gara, gure bazkide eta kolaboratzaile guztiei esker iritsi gara honaino. Baita Mallabia eta Zaldibarko herriei esker ere, denon artean lortu baitugu Mallabiko taldea Euskal Ligan egotea hurrengo denboraldian.

- Nola joan zen partidua?

Partidu erabakiorra eta urduritasun handikoa izan zen, jokoan zer zegoen eta talde santurtziarra gogor hasi zela ikusirik, nerbioak dantzan genituen. Hala, berriak egin zuten lehen gola, baina pazientziatz, aurre egin zioten gure mutilek oso itxia eta ondo egituratuta zegoen Mamarigakoren defentsari. Ikerrek egin zuen berdinketaren gola. Handik aurrera zabaldu egin zen norgehiagoka eta talde biek izan zituzten hainbat aukeraren ondoren, Yeraik Eguri



eginiko penalty bat 2-1ekoan bihurtu zuen. Ez zuen baina pozak asko iraun, Txusek bere atean sartu baitzuen 2-2an kokatu gintuen gola. Bigarren zatian talde biek defentsa sendotu genuen erasora jo beharrean eta apurka bazen ere, nekek hartu zituen gure aurkariak. Mallabitarrek golaren bila ekin zioten atzealdea zainduz eta azken bi minutuetan Josuk lortu zuen baloia, Yerairi helarazi zion eta 2 eta 3koa lortu zuen. Pozez zoratzekoa izan zen azken gola bai jokalarientzat eta bai Mallabitik gu animatzera etorri ziren lagunentzat. Udalak autobusa ipini zuen eta 26 bat lagun joan ginen Santurtzira.

- Ondo ospatzeko lorpena

eta giroa beraz...

Bai, udalak autobusa ipintzeak hainbat lagun bertara joatea eragin zuen eta guretzat lagungarri dira animoak. Mallabin, Bastida tabernan afaria egin genuen, dena zen poza! Astelehenean hasi ziren nire buruhausteak baina, lanera baino gehiago nengoen Euskal Ligara jarrita. Erkidego, hau da Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa mailan jokatzen den liga honetan aritzeko entrenatzaile titulu behar da eta nik ateratzeko asmoa banuen, baina hau dela bestea dela, ezin izan dut atera. Kontratu egin beharko dugu...

- Beraz hemen ere diruaren morroi

Bai, beste gauza batzuen artean gure arazoa orain di-

rua da. Udalaren eta orain arteko babesleez gain, beste batzuren bila gabiltza, Corte Inglesean ere egon gara baina... Ea hemen gure herrian aurkitzen dugun babeslerik eta aurrera atera genezakeen aurtengo urtea ere, ez da erraza izango baina.

- Jokalariak, denak dira mallabitarrek?

Ez, denak ez. Zorion Zabala, Yeraik Astigarraga, Ortzi Gisasola, Rafa Rubias, Aaron Pan, Ion Egurrola, Asier Albillos, Txus Jurado, Iker Araiztegi, Josu Araiztegi, Ibon Saez, Manolo Nieto, Julen Lerin, Iñigo Garcia, Ibai Reno. Espero dugu orain goragoko maila honetan gaudela, jende gehiago animatzea taldean jokatzerara, ea hala den.

Eneritz Aranburu



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISSETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

Drogeteniituri, 179 zkia.

MALLABIKO Herriko taberna

Eguneko platera (3€), menua,
plater konbinatuak, bokatak,
pintxoak, kazolak...

* Bazkari eta afariak
parrillan (enkarguz):
txuletak, arraina...

Enkarguak:
943 174 952
(asteartetan itxita)



INTXAURTIKO PLAZAREN EGOKITZE LANAK EGITTEKO 180.300€

Maiatzaren azkenetan ekin eutsien Intxaurtikoko plazako biherrei, bertan Haurreskolako umiek leku egoki eta seguru bat edukitze aldera egingo dana. Aterpe bat eta zinburu edo txintxaunek be ipiniko dabez, irekixek izengo direnak eta ranpatxo bat be ipiniko da umien eta ezinduen gurpildun aul-kixekin ibiltteko. 'Construcciones Lasuen'ek burutuko dabezan lanak 180.300€ kostako dabe. Luze jo dabe hasi orduko, Madrileko baimen eta diru kontuek direla-eta. Berez Udalak ekainerako prest edukittie nahi eban arren, irailien martxan ipinttie aurreikusit da.

UEMA EGUNA EKAINAREN 12XEN

Mallabixen ospatuko da aurten UEMA egune ekainaren 12xen, zapatuen. Mankomunitate hau sortu zanetik 19 urte igaro dira. 18 udalerrik hasi ebien euskaldunok gure herrixetan euskaraz bizi ahal izeteko langintza hau eta gaur egun 60 bat udalerrik osatzen dabe. Durangaldeko lau herri azkenengo bi urtietan sartu dira UEMAn, Otxandixo, Izurtza, Atxondo eta Mallabixe. Badira UEMATik irteteko "erabaki politikoa" hartu dabiennak be, "herri horiek normalizaziotik urrunduegin dira eta bertako herritarrek euskaraz bizitzeko duten eskubidean atzerapausoak nozitu dituzte", UEMAKo kidien esanetan. Mankomunitate honen eginkizunetan eta helburuetan, herritarrei euskaraz bizi ahal izateko eskubidie bermatzie dago.

Egun, administrazioan euskara lan-hizkuntza izatea onartua egoteaz gain, "onuragarritzat ere jotzen da". Mendeetan erdaraz funtzionatu duen administrazioak, eremu euskaldunetan euskaraz lan egiten hastea ahalbidetu du UEMAK, "euskara gure udaletako lan-hizkuntza bihurtuz". Urrats gutxi batzuk baino ez diren arren, "UEMAk aspaldi egindako eskerak kontuan hartzen hasi dira bake epaitegietan, kutxa batzuetan, saltokietan, lan munduan..." Baina ez da nahikue, mankomunitateko kidien ustetan. "Euskara Euskal Herriko udalerrit guztietan ofizial izendatuko duen araudia behar du-

gu", euskara eta euskaldunon hizkuntza-eskubidiek babestuko dittun legie, hain zuzen. Hau da, "eremu euskaldunetan euskara lehenetsiko duen araudia eta hizkuntza politika behar ditugu; euskararen normalizaziorako eremu euskaldunek garrantzi handia baitute", azpimarratu debe UEMAKo kidiek.

Egitaraue:

Ekainak 9, Durangoko Plateruenan:

19.00etan, Paul Bilbaok hizkuntza eskubidien inguruko tailerra eskeiniko dau.

Ekainak 12, Mallabixen:

12.00xetan, Xabier Mendigureni aitortza bere ibilbidiegaittik. Ondoren mahai-ingurue egingo da, 'UEMA: hasierako bultzada eta lehen erakundetzea'. Frontoien.

14.30xetan, bazkarixe frontoien. Txartelak salgai dagoz Udaletxien eta Liburutegixen.

16.00etan, umientzat ipuin kontalarixe, Lur Korta. Mallebarrengo parkien eta Elizoste kalien

11.00-13.30 eta 16.30-18.30, ume eta gaztetxuentzat jokuek (puzgarrixek, tailerrak, quad-ak...). Parkien.

12.00xen, herrixen arteko Xiba Jokuek. 8 partaideko (4 neska eta 4 mutil) 8 taldek hartuko dabe parte. 'Olinpiada' honetako jokuek/ariketak junkurie edo ingudea, sokatira, bertsotan, toka, auzolana (proba desberdinak: txokor batzie eta antzekuek), egur pilotzie eta Ginea Berriko umiek hondartzan jolasten daben Aras Lama izango dira.

18.00retan, Erlaxi taldiarekin erromerixie plazan.

23.00etan, Damu dot taldiaren disko barrixan aurkezpena plazan.

ARRIETA CORDEVI

Elektratresnak,
telebistak, bideoak,
musika aparatuak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

MUGA



KALORIK

San Pelaio 4A behea
Telefonoa: 17 64 77
ERMUA

AKADEMIA

ERMUA INFORMATIKA

TRESNERIA ETA OSAGAI
INFORMATIKOEN SALMENTA

Goienkale kalea z/g
Telefonoa (943) 17 90 38

IZOTZ
KONTELATUAK



Ermuko Merkatua.
54 eta 55 postuak
943 17 41 01
Arrasateko Merkatua
943 77 05 98

ELUR

ESTETIKA-EDERGINTZA

- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegirako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma
- Laser depilazioan espezializatuak
- Kontsulta mediko-estetikoa

Aldapa 1

943 17 60 52

943172665 ERMUA

BAGROS

Zubiaurre 20

*Pintxoak, otartekoak...
eta hostalarien umore ona*

Filo Rodríguez en eskuetan, bordauak artelan

Aurreko alian aitxatu genduan modura, eskuz bordatze kontuetan bi erakustaille ezagutu ditxu Ermuak: Elisa Albizuri merezitxako lekua ein geuntsan juandako hilleko orrixetan eta Filo Rodríguez en txandia da oingua.

Filomena Rodríguez Rubio Ermuan jaixo zan 1906ko otsailaren 26xan. Aitxa Pedro, neskatua jaixo baiño aurretik bere jatorrizko Béjar herritxik etorritxa, Eusko Trenbidietako Konpañian euan enpliauta; Ruperta ama, Salamankakua zan baitxa, Villagómezekua honen kasuan. Izelaieta kaleko 14an munduratu zala diño bere jaiotza agirixak, etxe horren beherengo pisuan. Andra-gizonak bigarren seme bat izatiaz gain, etxekotzat hartutako beste bat hazi eben, Angel, gerora Ermuko algua zilla izango zana.

Gazte zala hil jakozan Filori aitxa eta Manolo anaia, sasoi baten Bandako bonbolioa izandakua. Odolekuak izan ez arren, Filomena eta Angel anai-arreba modura hazi ziran; izan be, Ruperta amak *“mi Manolo y mi Angel”* esaten eban mutil bixak aitxatzerakuan.

Iñora ikastera juan barik, ikaragarrixa zan andra honen dibujorako erreztasuna, ezinbesteko bordatzeko or-

duan. Buruz etarutzen zitxuan muestrak eta bere eskutik zuzenian dibujatzen zitxuan lora, inzialak zein zenefa korapillatsuenak; ha kalko urdiña erabilli kalkatzeko... sekula bez holakorik! Ez ekan premiñarik, berezkua ekan-eta. Haren eskuetatik pasatzen zan traputxorik maxkalenari be, atentziñua deitzeko moduko biharrak eitxen zotsazen. Bene-benetako artelanak haretzek!

Urrezko eskuak

Herritxik kanpora be bere biharron barri zabalduta, Zarauzko zein Eibarko bezero ugari zitxuan, beste zeregiñik barik enkarguak eitxera etortzen jakon aberatsjendia. Roteta saltzaille zarauztarra sarri-sarri presentatzen jakon tela saltzera eta haretxi erosten zotsazen, tela merkiak zein hobatxuauak, danetarako bezerixia ekan-eta. Tolrá-zko kotoi-tela edarretan, ezin hobeto luzitzen eben gau eta egun ekinda Filo guriak bordautako festoiak, gaileta-



Filo Rodríguez, erdi lo be bordatzeko gauza zan.

festoiak, motak, matizauak, arenillak, filtiréak, bainiak...

Arratsaldero, ikasle aldratxua juaten jakon trenbide ondoko bere etxera. Andra gaztiak lehelengo orduan eta eskolatik urtendakuan neskatuak, merixendia jateko ixa astirik barik. Eskuak garbitxu eta bertan illuntzira arte, etxe osteko miradorran argitxasuna aprobe-txauaz eta bide batez Estaziño zein Kamiñu barrixeta-

ko harutz-honutza zainduaz. Errosarixua egunero erreza bihar izaten eben, bere ustetan kalterik ez zotsiela eingo eta deskuidau ezker 15 misterixuak! Berbaltxua zan, arratsalde osua ipoiñak kontatzen emoten eban, asko eta asko berak asmautakuak. Bere abots gozuakin, neskei Santuen bizitzen gaiñeko liburuak irakurtzeko ohitxuria ekan, arratsaldepa ezin hobia zalakotan.

DO
Mouth

Drogeteniituri, 179 zkia.

OSASUNA ETA EDERTASUNA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA

Marfil

FISIOTERAPIA

943 17 28 09
Goienkale, 12 - beheca

Infreñu
Taberna

Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

“Filo, dibujauko dostazu hau?” entzundakuan, bere bastidorra laga baztarrian eta trabauta zeunari laguntzera juaten zan. Haren ikututxuak urregorrixa balixo gero! Beran biharra eskuzkua zan hasi eta amaitxu arte, eta ondo einda gustatzen jakozan: azken izara barrera be, bainikiakin edo albo-puntada fiñakin errematitzen erakusten eban. Bera lakoxe kuriosia, bordautakua ez zikintzeko, egin ahala tapatzen juaten zan, bera telia jositxa amaitxutako biharra gaiñetik. Ikasliok alde eindakuan, gabara artekua eukitzen eban: esaten dabenez, erdi lo be bordatzeko gauza zan.

Bandera ikusgarriak

Harixa gora, harixa behera kategorixako esku-biharrrak eitxen zitxuan. Entzute haundikuak dira bere mantelak, platera ipintzeko lekua ez beste dana bordauta ekenak eta, zelan ez, herri-rako eindako 3 banderak: Musika Bandiandako, Acción Católicandako eta Udalandako. Enkarguz josi zitxuan hirurak, urre eta zidar-hari karuenetakuekin. Bandiana, detallera eindako Santa Zezilian irudi zoragarri batekin, 1954an josi eban Bandiak 50 urte beteeran. Haren aurretik amaitxu eban Udalan karmesí koloreko banderia, maixutasun ikaragarriakin herriko harmarrixa zedazko telan bordauta dakarrena; urtietan Santi-

xuetau zein egun haundixetan alkatiak eruan izan dau. Daken balixuagaitxik, banderok ondo gordeta dagoz: eindako biharraz gain, gaur egun eziñezkua izango zan horrek tela klasiok topatzia eta, nahitxa be, ezin izango zan erabillitxako harixen parekorik erosi. Bordatze kontuetan larregi aitzeko premiña barik bistakua da hárek dakezen biharrrak, siñistu be eziñeko perfekziñuakin einda. Bordau zitxuanetik 50 urte inguru pasau dira eta ez dake haritxo bakar bat solte!

Bere ikasle izandakuen akorduz, banderok bordatzen hillabetiak emon zitxuan, urrezko harixak kontu haundixaua eskatzen dabelako: telia zulatzen dabenez, lehelengo hari korriente batekin betetzen eban rellenua eta gero haren gaiñetik josten eban urrezko hari-xori, ertzetan puntada batzuk emonda errematauta geratu zeixan.


Erlojuari eta denporiari begitxu barik, begixak minu arto teko biharra ein arren, hutsa kobratzen eban, ez zekixan eindakuari baloria emoten. Gitxi bihar arren, urte estuak pasau zitxuan, gaixorik ama eta premiña txixixenei aurre ein

eziñik. Elizkoia eta fede haundiko andria zan; goizeko 7etako meziari gitxitxan eingo zotsan kale. Monja ein eta konbentura sartu guran urtiak emon zitxuan, baiña ama bizi zan artian haren onduan egon zan. 58 urte zitxuan ama Ruperta hil zanian eta gazte-gaztetatik amestutakua bete eban: Durangoko Salesen klausura Monastegian sartu zan, Josefa M^a izena hartuta.

Komunidadeko monja ahizpeei bordatzen erakutsi zotsien eta gerora haxe izan zan diru-iturri garbixena. Sute baten ondorixoz konbentua kiskalduta geratu zanian, edarra nasaitua izan ziran bordauoi esker irabazitxakuak.

Klausuran 21 urte emon zitxuan, azken go lau urtiak makalik, bere bordau maitxiok eiñ eziñik. Durangon hil zan 1985eko urrixaren 26xan, bihar dan moduan zainduta eta komunidadeguztian kariñua lagun. Berak eindako biharra ikusi bai, eta zer pentsatua emoten dabe: zenbat artista dago baztarretan, zenbat etxehormen ezkutuan, bihar dan moduko errekonozimientua jaso barik! Doiala hamendik guria, Filo!

Estibalitz González



ARTARRAI OPARI DENDA



Goienkale, 5 • Telf. 943 17 44 19
ERMUA

OUTUMURO KAFETEGIA

- Kafe bereziak
- Aukera handia **TE** eta **INFUSIOETAN**
- Tarta bereziak

• *Astelehenetik ostiralera 9etan
zabaltzen dugu*



**IMH
Elgoibar**

ingeniaritza
imh

HEZIKETA ZIKLOAK eta TXANDAKAKO INGENIARITZA



Ate irekiak MAIATZAK 29
(11:00etan)

IMH- Elgoibar-Tfnoa.943744132 imh@imh.es-www.imh.es

ESKOLABARRIKO HAUR-HEZKUNTZAKO JAI

Eskolabarriko umeek 2010eko haur-hezkuntzako jaiak egin dute Arizmendi pilotalekuan maiatzaren 21ean. IX. edizio honetan, 2, 3 eta 4 urteko ikasleek ikasturteari agur esateko hainbat ekitaldi aurkeztu dute. 5 urteko ikasleek, berriz, urte osoan landutako "Eta zuk, ze kolore duzu gustuko?" antzezlanaren lehen aldiz aurkeztu dute. Eskolabarriko ikastetxeak eta Guraso Elkarteak antolatzen dute jaialdi hau urtero.

SANTIXAU JAIETAKO KARTELA AUKERATZEKO LEHIAKETA

Ekainaren 10ean Santixauetako kartelak aurkezteko epea bukatuko da. Argibide gehiago lortzeko eta lanak entregatzeko Komentukua kalean dagoen Abiapuntu bulegora jo beharko da (8.00etatik 14.00ak bitartean). Irabazleak 600 euroko saria eskuratuko du.

BERDINTASUNAREN ALDEKO TXAPEN TAILERRA

Maiatzaren 29an, larunbata, txapak egiteko tailerra egongo da Emakumearen Topalekuan, 10.00etatik 14.00ak arte. 16 eta 25 urte bitarteko neskei zuzenduta dago eta bertan berdintasunari buruzko hausnarketa egin eta sormena landuko da. Izena emateko Emakumeen Topalekura joan (Izelaia 12) edo 943171030 telefonora deitu beharko da. Ikastaroaren prezioa 5 eurokoa da.

Errotabarri eskubaloi taldeko kadeteak, fase finalean

Errotabarri eskubaloi taldeko kadeteak Espainiako finalean izango dira. Porriñon jokatu da (Pontevedran), maiatzaren 26a eta 30a bitartean, eta bertan estatuko 8 talderik onenak bilduko dira. "Hemen ez da egongo irabazteko moduko talderik. Oso onak dira denak eta disfrutatzea izango da gure helburua" -dio Mikel Martinek, Errotabarri E.T. kirol koordinatzaileak-. Hala ere oso talde konpaktua osatzen dute Errotabarriko jokalariek eta gogotsu eta indartsu daude". Maiatzaren 14a eta 16a bitartean Espainiako kadete mailako eskubaloi sektorea jokatu zen Ermuko kiroldegian. Errotabarri taldeko neskek jokatuak hiru partiduetan irabazi zituzten, eta nola irabazi gainera!: Errotabarri 37 - Sagardia Marina Parc 21, Anagan Agreda 8 - Errotabarri 43 eta Errotabarri 21 - Baztango K.T. 17. Hau da, 101 gol alde eta 46 kontratan. "Zaila ematen zuen arren, taldeen arabera aukerak izango genituela uste genuen" -dio Mikelek-. Eta zorionez, irabazteko moduko taldeak egokitu zitzaizkigun".

**Euskal Literatura nagusi, San Pelayoko EMAn**

Urtero bezala, Euskal Mintzamen Astea (EMA) antolatu du San Pelayo eskolak, maiatzaren 19 eta 21a bitartean. Aurtengo gai nagusia Euskal Literatura izan da eta antolatzaileek diotenez "ahozkotasunetik idatzizkora eta gauza konplexuagotara jo nahi izan dugu, ikasleen adina kontuan hartuta". Horretan oinarrituta, txotxongiloak, antzerkia, ipuinak eta euskal mitologia jorratu dituzte besteak beste. DBHkoek berriz, euskal baserria, ahozko tradizioak eta bertsolaritzaren inguruan egin dute lan. Horretarako Zumarragako Igartubeiti baserrira txangoa egin dute eta bertan beheko suaren inguruan jardun dute. Bertsolaritza jorratzeko, berriz, Asier Ibaibarriagak hitzaldia eskaini zien. Datorren urtean, gurasoei zuzendutako ekimenak ere prestatzeko asmoa dute San Pelayo eskolako arduradunek.

**Irakurri, gozatu eta oparitu, beste bi hilabetez**

Laugarren urtez izango dugu horretarako aukera Ermuan, Euskal Birusa, Udal Liburutegia eta Maribel eta Xiripot liburu denden elkarlanari esker. Helburua euskarazko liburuak irakurtzera animatzea da eta horretarako, liburuak irakurtzearen truke, liburuak erosteko laguntzak eskaintzen dira. Funtzionamendua erraz-erreza da. Edozein joan daiteke liburutegira, euskarazko edozein liburu hartu eta mailegu zerbitzuari esker, etxera eraman han irakurtzeko. Liburuak itzulitakoan, fitxatxo bat bete eta erosketa-txekea emango diote, liburutegian bertan. Txeke horrekin, Maribel edo Xiripot liburu dendetan, %25 edo %50 merkeago erosi ahalko du euskarazko beste edozein liburu. Erositako liburu hori, lagun bati oparitzea proposatzen da. Aurten, aurrekoez gain, liburutegian, 30€ko erosketa-txeke eta liburu sortatxo bana zozketatuko dira hilero, liburuak irakurri ondorengo fitxa bete dutenen artean. Ekaina eta uztailean ere izango duzu aukera. Ez galdu!



ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOA

EGANA
ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

T XALAPARTA
ABERNA

Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua) **ENKARGYAK 943 030 299**

Durangaldeko bertsolari txapelketa, maiatzaren 29an

Maiatzaren 29an, arratsaldeko 18.00etan, Berrizko frontoian Durangaldeko Bertsolari Txapelketa izango da. Gure 2 ordezkari bertan izango dira, Beñat Ugartetxea mallabitarra eta Julen Sololuze ermuarra.

JULEN SOLOLUZE

20 urte. Ermuarra. Ingenieritza ikasketak egiten ari da Arrasaten. Deba Beheko bertso eskolako kide. Lehen aldiz aurkeztu da Durangaldeko Bertsolari Txapelketara eta finalean da.

- Nolatan hasi zinen bertsotan?

Ba nik ere ez dakit ondo. Gogoan dut, 2005eko txapelketa nagusiak bertsozaletu ninduela gehienbat eta handik aurrera esan daiteke bizio bat bihurtu dela. Dozena erdi bertso liburu irakurri ditut eta baita bertso asko buruz ikasi ere.

- Ze asmorekin aurkeztu zara txapelketara?

Dakidana eman eta neure buruari bertsotan egiteko kapaz naizela erakusteko asmorekin aurkeztu naiz. Bertso mundua zer den ezagutzeko irrika nuen eta horrek ere bultzatu nau txapelketan parte hartzera.

- Durangaldeko txapelketako finalean, ze espero duzu?

Gehiegi ez sufritzea eta ahal den trankilen abestea. Badakit hau betez gero ez dudala hanka sartze handirik egingo. Nire buruarekin pozik geratu nahi nuke, ez dut postuari edo txapelari begira inongo helbururik jarriko, bakar-bakarrik jendeak niri entzun eta disfrutatzea gustatuko litzaidake.

- Beñat Ugartetxeari, ze aukera ikusten dizkiozu?

Denak. Azkeneko ez dakit zenbat urtetan Durangaldeko txapelketa denez gero, eta beste 4 finalisten aukerak gutxietsi gabe, uste dut berriz janzteko aukera handiak dituela.

Bertso bat : Manuel Lasarte
Gure Euskalerrri berdin gabea
nik zenbat maitatzen dedan,
mingañez ezin nezake esan
biotzak nai duen eran!

Estranjeriko txori guztia
onuntza datozti egan,
zu baño txoko politagorik
munduak eztu beregan!

BEÑAT UGARTETXEA

Otxandion bizi den mallabitarra. Alaba baten aita. 4 aldiz Durangaldeko Bertsolari Txapelketa. Duela 2 urte, Bizkaiko Txapelketara ez zen aurkeztu eta aurten berriz itzuli da, indarberrituta.

- Orain dela 2 urte ez zinen aurkeztu. Zer aldatu da azken 2 urte hauetan?

Bi urte hauetan bertso kontuan ez dut aldaketarik izan, agian asti gutxiago dudala prestatzeko. Hortik aparte aita izatetik etortzen diren aldaketa normalak!

- Ze asmorekin zatoz berriz txapelketara?

Asmoak onak dira, ahalik eta ondoen kantatu eta gazte berriei lehiatu. Zaila izango da txapela berreskuratzea baina... Duela lau urteko mailara helduz gero, pozik!

- Plazaz-plaza zabilta hara eta hona. Gustura?

Bai, plazaz-plaza ibiltzea da gustuko dudana, eta arlo horretan ezin naiz kexatu, daukadan bertso mailarako plaza asko egiten ditudalako, urtean 40 inguru.

- Finalean ze espero duzu?

Final polita eta jende gehienak espero duen bezala, Mirenek txapela janztea. Hala ere, bigarren posturako lehian ibiltzea espero dut, gainontzeko 5 finalistok oso maila bertsukoak baikara. Nik bigarren egitea baino nahiago nuke Julenek, bertso lagunontzat 'Pepe Larremotxek', egingo balu.

Bertso bat: 'Burua' hitza emanda Andoni Egaña:
Batzutan da argia,
besteetan iluna;
batzutan pilakoa,
besteetan astuna;
kanpotik ilea du,
barruan garuna;
lepo gainean denok
daukagun laguna,
gehiegik gutxiegi
erabiltzen duna.

Asier Ibaibarriaga



DULCE BEBÉ PEQUE'S

0 eta 4 urte bitarteko umeentzako moda eta puerikultura

Zubiaurre 30 · ERMUA
943 170 005



URDAITEGIA - CHARCUTERIA

MAYTE

Plaza del Mercado
Tel. 17 24 12
ERMUA



Santiago Plaza 3, behea · ERMUA
943 10 82 42



CITROËN AUTOS AMEDI

Zearreko buelta 3 L8 pab.
Tel. eta Faxes. 943 17 04 14

Mikel Urdangarin:**“Hiztunok egiten dugu hizkuntza bizi”**

Hogeita bi urte daramatza Mikel Urdangarinnek AEKn, azkeneko zazpiak aholkulari hainbat enpresa eta erakundetan. Apirilaren 28an ‘Bost gezur borobil hizkuntzei buruz’ izenburuko hitzaldia eskaini zuen Ermuan, ‘Berbetan’ jardunaldien barruan.

- Zein dira gezur horiek?

Bost ideia lantzea aukeratu genuen: hizkuntzaren defentsa, identitatea, balioa, tamaina eta zailtasuna. Baina gezur askoz gehiago izan zitezkeen. Informazio asko, agerian egonik ere, baztertu egiten dugu, aurrez eraiki eta barneratu ditugun pentsamoldeekin lotzerik ez dugulako. Esaterako, garrantzi txikia ematen diegu hizkuntzei, nahiz eta gizakiaren eboluzioan eta iraupenean ezinbestekoak izan. Egoera berrien aurrean, gizakiak taldean lan egiteko gaitasuna garatu duela irau du. Zenbaitek uste du pertsona bera izango litza-tekeela ingelesez edo txineraz pentsatu eta komunikatu gero, eta ez da horrela. Arazo baten konponbidearen bila gabiltzala, bide desberdinak har ditzakete ingelesak eta txinatarrak. Ez soilik kulturarengatik, baita hizkuntzaren beraren egiturarengatik ere.

- Beraz, garrantzia handiago eman beharko genioke?

Bai, baina hizkuntzaren garrantzia nabarmentzeaz gain, aldi berean, desmitifikatu ere egin behar dugu. Hizkuntza kontzeptua baino ez da. Aditu batzuk esaten dute zer den euskara eta zer ingelesa edo gaztelania. Zein hitz eta arau dagozkion bakoitzari, baina ez dago hizkuntza bat perfektu hitz egiten duen pertsonarik. Ez dago hitz guztiak jakin eta erabiltzen dituenik. Aldakorra da, mugimenduan dago, eta hiztunon-gan gauzatzen da. Hiztunok egiten dugu hizkuntza bizi. Gainera, hizkuntza kontzeptua den neurrian, ez du esku-biderik, udaberriak, askatasunak edo etxeek ez dituzten bezala. Eskubideak pertsonok ditugu. Beraz, ez ditugu hizkuntza baten eskubideak defendatu behar, egungo eta etorkizuneko hiztunenak baizik. Ez dute hizkuntza eraso-



tzen, hizkuntza horretan bizitzeko eskubide duten pertsonenak baizik. Bide batez, ez genuke gurea bakarrik defendatu behar, munduko hizkuntza-komunitate guztien eskubideak baizik. Horrek gure aldarrikapenari indarra ematen diola uste dut.

- Baina hizkuntza batzuk beste batzuk baino handiagoak dira, ezta?

Bide beretik jarraituz, ez dago hizkuntza handi edo txiki-rik. Hizkuntza-komunitateak izan daitezke handiak eta, bereziki, ekonomikoki eta militarki indartsuak. Ingelesaren kasuan, egungo egoera Ingalaterrak izandako kolonietan du lehen oinarria, eta egun EEBBk duten botere ekonomiko eta militarrean bigarrena. Hizkuntzen aferaren atzean, interes ekonomi-

ko handiak daude. Zergatik sustatzen du Telefonikak gaztelaniaren balio ekonomikoari buruzko ikerketak? Zergatik hurbildu Hego Ameriketara? Zergatik negoziatu Brasilgo gobernarekin gaztelania izatea lehentasunezko atzerriko hizkuntza hango eskoletan? Gaur egun, 100 ekonomia handienetatik 28 enpresak dira. Gobernu askok baino eragin handiagoa dute. Egunkarietako azken berriak irakurri besterik ez dago. Ikuspegi horretatik begiratuta, euskal hiztunen komunitateak ez du indar handiegirik, baina ezin esan hizkuntza txikia denik. Izan ere, David Crystal linguistaren arabera, euskara dago munduan hiztun gehien dituzten %10 hizkuntzen artean. Txikia da? Nola izango da txikia norbe-

“Euskara dago munduan hiztun gehien dituzten %10 hizkuntzen artean”

KRABI
Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

ALBOKA

**MUSIKA
ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarinetea
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoia muskala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

rarentzat maite dituenekin egunero erabiltzen duen hizkuntza hori!

- Tamaina erlatiboa izan daiteke, baina hiztun gehiago izatea nahiko genuke eta batzuek diote euskara munduko hizkuntzarik zailena dela.

Hizkuntza bat ikasteak ahalegina eskatzen du, beste edozein ikasketak edo aldaketak bezala. Hainbat gakok eragiten dute: motibazioak, nondik abiatzen garen, hizkuntzarekin dugun harremanaren maiztasuna... Helburuak berak ere eragina du, ez baita gauza bera ikastea, bizilagunak esaten diguna ulertzeko, edo haren seme-alaben irakasle izateko. Gure ustez ez dago hizkuntza zail edo errazik. Gehienez ere, hizkuntzen arteko hurbiltasuna izan daiteke. Baina distantzia hori erlatiboa izango

da beti, jatorrizko hizkuntza-aren baitan baitago. Hau da, Iruñea dago Ermutik gertuago Madril baino. Toledotik, berriz, ez. Eta Tokiotik begiratuz gero, antzerako egongo lirateke biak ere.

- Hizkuntza bakarrarekin ez ginateke guztiok hobeto moldatuko?

Baliteke, baina zein auke-ratuko genuke? Nirea ala zurea? Gaztelania ala ingelesa? Ez dut uste horrek konponbide erraza izango lukeenik, besteak beste, azaldu ditudan interes ekonomikoak daudelako tarteko. Gainera, historiari erreparatu besterik ez dugu eta latinari gertatutakoa ikusi.

- Beraz, hizkuntza-aniztasuna da egoera naturala?

Bai, eta hori kudeatzen ikasi behar dugu. Ez da problema bat, ez baitu konponbiderik. Dilema da, kudeatu

behar da, eta ez da gurean bakarrik ematen. Munduan 6.500 hizkuntza daude eta 200 estatu bakarrik. Oro har, aniztasuna da guztietan. Hurbileko bat aipatzearen, Italian 11 dira hitz egiten diren hizkuntzak. Ikuspegi ekonomikotik ere, errealitate anitz hori ongi kudeatzen duenak etekina lortzen du.

- Etorkizunean, zure ustez, zein leku izango du eleaniztasunaren kudeaketak gure artean?

Gora egingo du ezinbestean. Gero eta mugimendu handigoak daude: etorkinak, turismoa, enpresen nazioartekotzeak, ikasleen joan-etorriak... Aldi berean, globalizazioaren indarrak kontrako beste indar bat sortu du: lokalizazioarena. Gero eta gehiago baloratzen dugu tokian tokiko janariak, kulturak, hizkuntzak... Hor dago gizakiaren benetako aniztasuna, ez azalaren kolorean.

- Mundu eta merkatu gero eta eleanitzago honetan, nola defenditu ahal dugu euskara bezalako hizkuntza txiki batean posizioa?

Gizatalde baten %25 merkatu-nitxo ederra da. Are gehiago, kontuan badugu, gurean, elebidunen gaitasun ekonomikoa biztanleen batez bestekotik gora dagoela. Dena den,

galdera horren erantzuna izango bagenu, beste egoera batean ginateke. Uste dut bidean dagoela erantzuna. Gizakia tartean egonik, ez dago erantzun zehatzik. Egiten duzuna egiten duzula, eragin nahi duzunaz gain, kontrola ezin duzun beste ondorio bat izango du. Eta berriro egokitu beharko duzu estrategia.

- Zer egin dezakegu guk, egunerokoan, eleaniztasun hori praktikatzeko?

Lehenik eta behin, egoeraz jabetu behar dugula eta kontzientzia sortu. Elkarrekiko begirunea landu. Bigarrenik, hausnartu eta gure bizitzan zein hizkuntza behar edo beharko ditugun aurreikus. Gutako batzuk zorte handia izan dugu, gurasoek gu D eremuan matrikulatu gintuztelako. Horri esker gara elebidunak. Aukera hori izan ez duenak ikasi beharko du AEKren udako kanpainak dioen bezala 'mihi puntan daukaguna ateratzeko'. Nik, behintzat, ingelesaz gain, katalana eta frantsesa ikasteko premia sentitzen dut, eta oporretara joaten naizen herrialdeetako 10-20 hitz. 'Egunonak' eta 'eskerrikaskoak' behintzat bertakoen hizkuntzan eman ahal izateko. Hain zuzen ere, hori da hirugarrena, dakizuna erabili.



*Euskara eta euskaltegia
egin biak zureak*

UDAL EUSKALTEGIA

Teresa Murga, 2. solairua
Tel. 943 17 09 25

Quetzal
Aurpa, bitxiak,
opariak... zer ez!

Goienkale 9 · ERMUA
943170065

SAGARDUI
bolsos

Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305

Proba-Leku
Heapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

TOLDOS Y PERSIANAS ORBE

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2
Tel. 943 17 66 34
Tel. mugikorra 630 01 13 41
48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1
Tel. 943 17 98 60
48260 ERMUA (Bizkaia)

MENDIOLA
Restaurante - Jatetxea

Erdikokale, 19
Telefona 943 17 22 43

48260 ERMUA
(Bizkaia)

JUANJO ASTOREKA

- *Zenbat denbora lapiko artean?*

20 urte inguru. Mendexan 1991an hiru lagunek Herriko Taberna hartu genuen eta lanak banatzerakoan, nik sukaldea aukeratu nuen. Azkenean bakarrik geratu nintzen tabernan 1999ra arte. Orduan Ondarroako Ikastolako jantokian hasi nintzen. Sukaldari moduan aritzeko titulua ere atera nuen eta gero, Ermurantz gerturatzeko Eibarko La Sallera etorri nintzen.

- *Sukaldaritza afizioa ala ofizioa?*

Ofizio bihurtu den afizioa.

- *Sukaldean sartu aurretik itsasoan ere ibilitakoa zara...*

Ez nuen denbora askorik egin, arrantzako hiru kanpaina egin nituen eta benetan gogorra egin zitzaidan.

- *Esaten da gazteek oro har gaizki jaten dutela. Zuk zer diozu?*

Ez da egia. Umeek jartzen diezuna jaten dute eta ohitu egiten dira.

- *Zein adineko jendearentzako ari zara menua prestatzen?*

2 urtetik 12 urtera bitartekoentzako.

- *Gazteak asko kexatzen zaizkizu?*

Kexatu bai, baina uste dut euren rola ere horixe dela.

- *Astelehenerako menua...*

Arroza tomatearekin eta arraina.

- *Zu jatun ona zinen gaztetan?*

Bai, beti izan naiz jatun



Juanjo Astoreka 'Zoragarri', azken 19 urteetan Ermuan bizi den lekeitiarra da. Bost anai-arreben artean laugarrena da eta seme baten aita. Sukaritzarako afizioa ofizio bihurtuta, egun La Salle ikastetxean ari da sukaldari-buru eta jangelako arduradun.

ona. Horregatik zailagoa egiten zait jatun txarrak ulertzea.

- *Nola prestatzen duzue ikastetxe batean egunero-k menua?*

Guri enpresa batek menuak eginda bidaltzen dizkigu eta guk horren arabera erosi eta prestatzen dugu egunerokoa.

- *Zuen etxean nor da sukaldaria?*

Ni.

- *Plater bat...*

Arraina: legatza, bakaila-
oa, txipiroiak...

- *Lekeition 'Zoragarri' zara. Zer dela eta...*

18 urte izango nituen euskaraz alfabetatzen hasi ginenean. Orduan guretzat hitz batzuk erabiltzea ez zen oso ohikoa, 'zoragarri' esaterako. Baserri batean asteburu pasa ginela, tortilla bat egin nuen eta atera zitzaidan: "Hau tortilla zoragarria!". Hura izan zen nire ezizenaren arrazoia.

- *Lekeitio...*

Umetako lagunak, familia, nire bihotzaren zati eder

bat han dago.

- *Ermua...*

Beste zati bat: nire emaztea, semea, lagunak...

- *Zerk ateratzen zaitu zure onetik?*

Gezurrak.

- *Zer pozten dizu eguna?*

Irribarre batek. Bi urteko ume bat bazkaltzen ikusteak, bere naturaltasunak pozten nau.

- *Lanetik kanpo...*

Lagunekin ibiltzea, mendia.

- *Nor gonbidatuko zenuke afaltzera?*

Lagunak.

- *Sukaldari bat?*

Topikoena izan arren, Argiñano. Batez ere sukaldaritza jendearengana hurbildu duelako.

- *Itsasoa ala mendia?*

Biak ditut gustuko baina batekin geratzekotan, itsasoarekin geratuko nintzateke.

- *Bertute bat?*

Lagunen laguna naizela.

- *Egunero kale egin gabe egiten duzun hori?*

Egunkaria irakurri. Bizio bat da niretzat.

- *Bidaia bat nora?*

Europako edozein hiritara.

- *Miresten duzun pertsonarik?*

Gure ama. Sasoi hartan, baliabide urriekin eta bost seme-alaba aurrera ateratzea...

- *Zerbait egin ez izanaren penarik baduzu?*

Ikasi behar izan nuenean, ez ikastearen pena.

Alazne Aiestaran

Yoga eskola

Sanatana Dharma

* Arnasketa.
* Ariketa fisiko egokiak...

San Roke 24, behea · 943748593
685722131 (Idoia) 639652729 (Lourdes)

TELEFLOR INTERNATIONAL

Zubiaurre 14
Telef. 943 17 28 88
48260 ERMUA

EGUZKILORE

Amadeo González, gimnasia hipopresiboko irakaslea: “Ezezagunak izan arren, onura ikaragarriak dituzte hipopresiboek”

- Zer da gimnasia hipopresiboa?

Faxa abdominala, zoru pelbikoa eta gorputz-jarrerak lantzen dituen gimnasia da. Honetan oinarrituta, bezeroaren arazoak kontuan hartuta, ariketa mota batzuk edo besteak egiten ditugu.

- Ohiko abdominalak indartzeko ariketekin zerikusia dute?

Ez, horien kontra jotzen dugu hain zuzen ere. Betiko ariketa horiek presio ikaragarria egiten dute faxa abdomi-



nalean eta zoru pelbikoa beharantz joatea eragiten dute, bai emakumeengan eta baita gizonengan ere. Ondorioz, prolapsok (barruko organoak bere lekutik mugitzea), gizonengan izterrondoko etenak eta emakumeengan erditzen sortzen diren arazo berdinak sor daitezke.

- Zein onura ditu?

Onuren zerrenda amaigabea da, baina txizari ezin eusteko arazoei konponbidea ematen die, sabela kendu, gerria argaldu eta erditu ostean osatzeko da bereziki ona, besteak beste.

- Zeini zuzenduta dago?

Batez ere erditu berri duen emakumeei, baina emakume zein gizonengan sekulako onurak ditu.



- Zergatik da ezezaguna?

Diziplina hau nahiko berria da. Marcel Caufriez belgikarra izan da honen sortzaile eta bultzatzailea, 1990. urte inguruan. Gero eta gehiago ezagutzen den arren, jende ospetsuak hala nola izen handiko kirolariak hipopresiboak praktikatzen dituztela esan arte, jendeak ez du gimnasia mota honetan arreta jarriko. Marcel Caufriezen webgunean (www.marcel-caufriez.com), gimnasia hau emateko gaitasuna dugunon zerrenda agertzen da, herriz herri sailkatuta. Oso garrantzitsua baita prestaketa egokia duen profesionalarengana jotzea.

- Ikastarorik egin duzue Ermuan?

Bai, ikastaro bat egin genuen martxoan Batzokiko gimnasioan, 'Reprocessing Soft Fitness' deiturikoa. Jende kopuru dezente hartu zuen parte eta pozik geratu ginen. Klase horietan jarrerateknika ezberdinak lantzen ditugu eta ikasleek euren kasa praktikatuta behar dituzten ariketak lantzen ditugu. Norberaren lana ere ezinbestekoa da emaitzak lortzeko.

- Ikastaro berriren bat prestatzen ari zarete?

Bai, uda pasatutakoan bigarren mailako ikastarora egingo dugu, ariketa zailagoekin. Gainera, jende berriak interesa duela ikusten badugu, oinarritzko beste ikastaro bat egingo dugu.

0 eta 8 urte bitarteko umeentzako moda eta puerikultura

mimitos

Zapatak, pijamak,
lentzeria, aulkiak,
sehaskak, tronak...
behar duten guztia!

Eta gainera 'Hello Kitty'-ren
artikulu mordoa!

Probaleku 4, Ermua · ☎ 943 033 830

Pub Dakota



Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)

dakotaermua@hotmail.com

Cable Spot



25 urteko esperientzia dugu
antena kolektiboak eta atezain
automatikoak instalatzen.

Zure antena TDTrA egokitu.
ETEN ANALOGIKOA
GERTU DAGO!



EUSKALTELEN BANATZAILEA

Telefonia mugikorra, zuntz-optikoa,
banda zabala, kable telebista...

euskaltel

ERMUA. San Pelayo 4 behea. 943 172314

Etxeko langileak: eskubide gabeko langileak, noiz arte?

Etxeko langileei buruz ari garenean lan baldintza eskasei buruz ari gara, talde honek oraindik ez baitauka Lanbidearteko Gutxieneko Soldata (LGS) kobratzeko eskubiderik, ez astean 40 orduko lanaldia izateko eskubiderik, ez astean egun eta erdiko atsedenaldia izateko eskubiderik, ezta lan istripua dela-eta, baja hartzeko eskubiderik ere.

Azkeneko datuen arabera, 1985eko abuztutik aldaketarik izan ez duen Etxeko Langileen Erregimen Berezian afiliatuak direnen artean, erdia baino gehiago emakume atzerritarrak dira.

Soilik kanpoko langileen %3k LGS kobratzen du, eta barneko langileen lanaldia, egunean 10 ordu baino gehiagokoa izaten da. Gainera, kanpoko langileen %40a eta barneko langileen %56a ez daude Gizarte Segurantzari alta emanda.

Enplegatzaileen gehiegikeriak ohikoak izaten dira. Paperik gabeko emakume etorkinek edo lanbaimena berrizteko beharrea daudenek, oztopo gehiago dituzte eta gehiegikeria horien aurrean egoera ahulagoan geratzen dira. Gutxi balitz, enplegu agentzia pri-




batuek ilegalki funtzionatzen dute, etxeko lana are gehiago gutxies-ten.

Hau dena berezko aldarritzat hartu du Mugimendu Feministak. Etxeko langileen kontra sortaraz-ten den egoera zapaltzailea lehen mailako arazo politikoa delako. Erregimen Orokorrekin pareka-tzea exijitzen dugu eta langiletzat hartzea, etxeko lana ezkutuko eko-nomiatik ateratzea beharrezkoa baita.

Ez dira bigarren mailako langile-ak. Etxeko lanik gabe, mundua mugitzea ezinezkoa izango zen.

“ Etxeko lanik gabe, mundua mugitzea ezinezkoa izango zen ”



IKASTOLA
38 urte Ermua euskalduntzen




TXINDURRI
TALDEA
Tokian tokiko



Enter
INFORMÁTICA
SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA
VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

PRO



- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK

ESKAINITZA BEREZIA
OSTIRALERO

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA

ALOKAIRUA
 Alokatzeko pisu txiki baten bila nabil Ermuan. Interesatuak deitu 607 911 596 telefonora. Juan Ramon.



Maiatzak 27
 Zorionak Joane! Ondo pasa zure 9. urtebetetzean. Musu handi bat Haimar, ama eta aitaxoren partez.



Maiatzak 23
 Zorionak Aratz!!! Maddi, amatxo eta aitaxoren partez.



Maiatzak 15
 Zorionak Maialen zure urtebetetzean familia osoaren partez.



Ekainak 10
 Zorionak ama zure seme-alaben partez.



Maiatzak 27
 Zure 6. urtebetetzean, zorionak Jone. Aitaxo, amatxo eta Garaziren partez musu handi bat.



Maiatzak 31
 Zorionak Olatz zure 2. urtebetetzean. Aita, Aritz, aitita eta osabaren partez.



Maiatzak 19
 Zorionak Imanol, Natalia's girls-en partez.

Bidali zure zorion-agurra edo iragarkia drogeten@gmail.com helbidera edo gure bulegora ekarri.
 Hurrengo zenbakirako azken eguna:
EKAINAK 15

**Elexosteko obrak direla eta, gure behin-behineko helbidea hauxe da:
 Errebalburu 1, behea. !!**

drogeteniturrri

Euskal Birusa Elkarte

943 17 93 50
 Erdikokale 2, 1 - Elexoste
 www.euskalbirusa.org

BACKSTAGE

6 - 16 URTEKOENTZAKO ARROPA !

Zubiaurre 30 · Ermua
 943 174 576

AHOLKULARITZA FISKAL ETA LEGALA

URIARTE IRAEGI, S.L.

Komentukoa 3
 Telefonoa: 943 17 33 87 • 48260 ERMUA (Bizkaia)

URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolaia
- * Rielak
- * Giltzak
- * Zerrailgintza
- * Kit altzariak

Beharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

Ardo banatzailea:

Riedel	Hugel&Fills
Avgvstvs	Anima Negra
Clos Mogador	Irache
Yllera	Cillar de Silos
Cantosán	Vriego
Luis Cañas	Laurona

DISTRIBUCIONES ARRAL
 TELEFONOA: 943 17 60 75

**MALLABIA
1955**

Argazkia 1955 ingurukoa da. Artixeko Eskola aurrien aterata. Maiatzean Amabirginari lorak jartzen zitzaizkion. Bertan agertzen dira: Mari Carmen Uzuriaga, Urizar; Felisa Amillategi, Barrenetxe; Sabina Mallabia, Mañegañe; Mari Carmen Mallabia, Mañegañe; Dorita Arregi, Zeintze; Maria Luisa Uriarte, Estakuagañe; Antonia Mandiola, Asuntze; Ana Mari Osa, Mañeazpi eta Jesusa Zubiate, Autenetxegañe.

**ERMUA
1969**

Atzeko itsasontzi horrek itsasertzean zeudela eman arren, Urkiolako San Antonioko pagadien inguruan atera zuten argazkia Lourdes Egia eta Chelo Quintanak, kartoizko mural erraldoi horien aurrean jarrita. Betidanik ekainaren 13an, San Antoniora joateko ohitura handia egon da eta ez beti automobilen erosotasunakin: Durangora trenean eta handik gero oinazean, errepidez-errepide, tontorreraino. Mendiko baino kaleko arropak jantzita eta oinetan zapatilak, euria egin arren ere. Poltsan eguneko bazkaria joaten zen: bokadilo batzuk, fruta ale pare bat eta kitxo! Iturrian ur tragoa egin, dantza mordo bat... eta txaka-txaka eta kantuan berriro Durangora. Han, Ezkurdiko plazan, beste bailable batzuk jo eta leher-leher eginda, pozarren, trenera. Kantuak zeozerrengatik esaten du:

*"Askok egiten dautso San Antoniori
egun batian juan, maitia
bestian etorri.
Ai, ai, ai!"*

Horrenbeste gauza egun bakarrean egiteko ez ziren makalak, ez!



Drogeteniiturrri, 179 zkia.



Martxoan Ermuko Merkatarari eta Ostalarien Elkarteak Ermua txartela atera zuen. Txartela doakoa da, kontu korrontearen helbideratzea ez da aldatu behar, erosketetan deskontuak egiten dira, Hambreko gasolindegian %2ko beherapena eskaintzen du urte osoan, puntuak pilatu eta opariak lor daitezke, erosketak epeka ordaindu ahal dira interesik gabe... Dagoeneko 1215 txartel egin dira. Ezagutzen duzu Ermua txartela? Zer iruditzen zaizu?

Ezagutu eta egitea erabaki nuen. Uste dut zoragarria dela eta asko erabiltzen ari naiz. Gainera, Ermuko Merkataritza sustatzeko neurri oso ona dela pentsatzen dut.



Verónica Sarmiento. 36 urte. Langilea



Bai, ezagutzen dut eta hain zuzen ere eskaintzen dituen abantailengatik egin nuen txartela. Uste baino gehiago erabiltzen dut eta oso pozik nago, gainera ekarpen oso ona izan dela pentsatzen dut bezeroentzat oro har.

Jessica Docampo. 26 urte. Langilea

Bai, ezagutzen dut eta eduki ere badaukat. Batik bat gasolina botatzeko erabili izan dut orain arte. Uste dut oso ondo dagoela eta eskaintzen dituen abantailak igarri egiten direla. Beste alde batetik, Ermuko merkataritzarentzat ona izan daitekeela pentsatzen dut.



Iñigo Pradera. 32 urte. Langilea



Nire lagunek azaldu didate zer den eta zer nolako abantailak eskaintzen dituen txartelak, baina ez daukat, normalean Ermuan ez ditudalako erosketak egiten. Hala ere, pentsatzen dut ondo dagoela ekimena.

Tania Andrés. 28 urte. Langilea

Ezagutzen dut eta gainera duela gutxi denda batean eskaini ziguten, baina momentuz ez dugu atera, batez ere beste txartel bat gainean ez eramatearren.



José Luis Pereira. 34 urte. Langilea



Badaukat txartela, duela hilabete batzuk egin nuen eta pare bat aldiz erabili dut egin ditudan erosketetan. Oso ondo dagoela uste dut bai bezeroentzat eta baita merkatarientzat ere.

Jesús María Campo. 33 urte. Langilea

Testua: Alazne Aiestaran

Bar London
Komentukua 2, Ermua
Tlf: 943173312

optika itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

ZINE-KLUBA**Hilak 3:**

'Retorno a Hansala'.

Hilak 10:

'Ander'.

Hilak 17:

'El cónsul de Sodoma'.

Hilak 24:

'Nacidas para sufrir'.
19.00 eta 21.30ean.
Lobiano Kultur Gunean.
Sarrera dohainik.

MUSIKA**Hilaren 14tik 16ra:**

Kontzertua: Alboka
Musika Eskolako
ikasleak. 19.30ean.
Lobiano Kultur Gunean.

Hilak 18:

Kontzertua : Alboka
Musika Eskola
(Alboka eguna).
22.00etan. Orbe
Kardinalaren plazan.

Hilak 19:

Ermuan kantuan.
12:30ean. Jardunaldi
Gastonomikoekin
batera. Plazatik.

Hilak 26:

Urban gazte Jaialdia:
Hip-Hop, break-dance,
grafittiak... 18.00etatik.
Orbe Kardinalaren
plazan.

ANTZERKIA**Hilak 11:**

Kale ikuskizuna:
Payasos en rebeldía
(México rebelde
jaialdia) 18.30ean.
Orbe Kardinalaren
plazan.

Hilak 23:

'Los títeres de
cachiporra', Ermuko
Haur Antzerki Tailerraren
eskutik. 18.00etan.
Lobiano Kultur Gunean.

Hilak 24:

'Prestige', Ermuko
Haur Antzerki Tailerraren
eskutik. 18.00etan.
Lobiano Kultur Gunean.

DANTZA**EUSKAL JAIA****Hilak 12:**

18.30ean: Adolfo
Jainagaren taldea

Hilak 13:

Ermuko eta Euskal
Herriko dantza taldeen
erakustaldia.
11.00etatik
14.00etara eta
16.00etatik
19.00etara.
Orbe Kardinalaren
plazan.

ERAKUSKETAK**Maitzaren 31tik****ekainaren 4ra:**

Argazkiak: 'Atzo eta
gaurko inmigrazioa'.

**Hilaren 14tik 27ra:**

Margoak: Ermuko Udal
Margo Eskolako
ikasleak.

Lanegunetan

18.00etatik

20.00etara.

Asteburuetan

12.00etatik

14.00etara eta

18.00etatik

20.00etara. Lobiano

Kultur Gunean.

BESTELAKOAK**Hilaren 1etik 6ra:**

Extremadurako
zentruaren kultur astea:
Hainbat ekitaldi.
Extremadurako zentruan
eta San Pelaio plazan.

Hilak 5:

Kulturarteko jaialdia:
musika, erakusketa,
gastronomia,
artikuntza... 11.00etatik.
Orbe Kardinalaren
plazan.

Hilak 13:

Aize zabaleko margo
lehiaketa. 10:00etatik.
Ermuko kaleetatik.

Hilaren 14tik 19era:

Gastronomiari buruzko
jardunaldiak: hainbat
ekitaldi.

Hilak 19:

Gastronomiari buruzko
azoka. 11.00etatik.
Orbe Kardinalaren
plazan.

Hilak 20:

El Rocioko erromeria.
11.00etatik. Ongaraiko
parkean.

Hilak 23:

San Juan Sua.
22:00etan. Orbe
Kardinalaren plazan.

Patxi López

Harategia

M. LAZKANO

BERTOKO OKELAK

Geure Baserrian

Hazitako Txalak

GEUK GIZENDUTAKO

ABELTZANTZA

Merkatua, 36-37 zbk.k

Tfnoa. 943 17 05 84

Ermua

**OPTICA
J. CASADO**

Lenteak
Audifonoak
Graduatutako Antiajuak
Eguzkitako Antiajuak

Kantabria, 2
Tfnoa. 17 33 57

ERMUA

**MIGUEL
Harategia**

**TXORIZOAK
ODOLOSTEAK**

Probaleku, 3

☎ 17 05 63

ERMUA

(Bizkaia)

**hamburguesería
TITANIK**

*Pintxo dastaketa
poteoan*

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

**UME ETA HELDUENDAKO
PSIKOLOGIA
KABINETEA**

ARRATE GARITAONANDIA

- ESTRESA
- ANTSIETATEA
- DEPRESIOA
- ERLAJAZIOA
- FOBIAK
- ALZHEIMER-TERAPIA
- IKASTEKO TEKNIKAK
- UMEEN ARAZOAK
- AUTOESTIMA
- MEMORIA LANKETA

AURRERA EDIFIZIOA 943 20 22 66
Urtzaille 1, 1. esk. (Eibar) 646 233 182



**“Adituak gara ondo
elikatzen irakasten”**

AINARA IRIONDO ANSOLA
Giza elikaduran eta Dietetikan Diplomatu

Komentukua 1, behea. 943 17 63 72

Irale
hortz klinika

Leire Irazu Garitaonandia

- Ortodontzia
- Pedriodontzia
- Odontologia orokorra
- Aho zirujia
- Inplanteak

Zeharkale 8, behea 943 17 71 34
www.irale.com

KIROL MEDIKUNTZA
Indartu
ERREHABILITAZIO ETA KONTSULTA ZENTRUA

- Konsultak eta errekonozimendu medikoak • Fisioterapia
- 3. adinekoen mantenimendua • Esfortzu frogak • Urgentziak
- Masaje terapeutikoak eta kirol masajeak
- Laneko patologiak eta erizaintza • Kirol errekonozimendu medikoak
- Ermuko IMDra abonatuak % 10eko beherapena lesio kontsultetan
- Odol ateratze zentroa, egun berean erantzuna jasoz

ERA GUZTITAKO MUTUA ETA ASEGURUEKIN KONTZERTATUA

Diputazio 8-10 48260 ERMUA • Tel. 943 17 21 12 - 943 17 21 16
Faxa: 943 17 21 12 • e-maila: indartu@euskaltel.net

san pelayo
clínica dental hortz klinika

Inplanteak
Ortodontzia
Periodontzia
Hortz -zuriketa / Estetika dentala
Odontologia orokorra
Protesiak
P.A.D.I. - I.M.Q. - SANITAS

San Pelayo 5, 1. Olatz Garcia Arregui
Ermua (Bizkaia) 943 17 04 04

OSASUN GIDA

OINAK LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdiko kale 1, 1. A
48260 Ermua
© 943 17 47 44

HORTZklinika
nerea iñiguez

- Odontologia orokorra
- Estetika dentala
- Inplanteak
- Ortodontzia
- Protesiak
- Periodontzia
- Zirujia

San Ignazio, 4 ERMUA
943 03 05 12

fisioterapia
eta osteopátia
zentroa
aitziber


Aitziber Fernández
Telf. 943 17 60 95
629 88 70 89
Sexto Centenario 13,behea
48260 ERMUA (Bizkaia)

**OSASUN GIDAN AGERTU NAHI BADUZU DEITU
943 17 93 50 edo 688 63 28 76
TELEFONORA**

æk

udako ikastaroak

Mihi puntan duzu



UZTAILA - IRAILA

- Gazteentzako trinkoak (50 ordu) 14/15 urte
 - Maila ofizialak eta EGA
 - Etorikinentzako AISA ikastaroa
 - Euskara hobetzeko ikastaroa
 - Zentro homologatua
- kaltxango@æk.org | 943 171 940

KALTXANGO AEK EUSKALTEGIA

Hartu lekua!

æk

Garena ikasteko
para entenderemos
pour se comprendre

www.æk.org | 902 36 22 94